

FUNTSEZKO JARDUERAK

Zein dira egin behar dituzuen gauzarik garrantzitsuenak zuen proiektuak funtziona dezan?

Hasteko, guk pentsatutakoa ondo funtziona dezan, bidaia ondo planifikatuta eta organizatuta egon beharko luke, zeren eta gure ustez hori funtsezkoa da. Helburua argi izan beharko dugu eta zer motatako planifikazioak egin beharko ditugun, adibidez: abenturazkoa, familiakoa, banakakoak, luxuzkoak eta abar.

Izango ditugun gastuak kontuan hartu beharko ditugu, bereziki, hoteletako egonaldiak, hegaldiak eta zerbitzu espezialak, bezero ohikoei eskainitakoak. Bestetik, aurrekontu bat izan beharko dugu eta beti diru kantitate bat soberan, arazoak ekiditeko.